6250

AGINDUA, 2008ko urriaren 16koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» Musika Eskola Pribatuari espezialitateak gehitzeko baimena emateko dena.

Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» musika eskola pribatuak musika-espezialitateak gehitzeko egin duen eskabidea aztertu da.

Euskal Autonomia Erkidegoan musika-irakaskuntza espezifikoa, arautu gabea, ematen duten ikastegien -musika-eskolak- sorrera eta jarduna arautzen duen urriaren 27ko 289/1992 Dekretuaren II. kapituluan ezartzen da irakasleei musika-eskoletan irakatsi ahal izateko eskatzen zaien titulazioa (1993ko urtarrilaren 4ko EHAA).

Indarrean dauden legeak ikusi ondoren eta arauz eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla kontuan harturik, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Azkoitiko (Gipuzkoa) «Bizkargi» Musika Eskola Pribatuari 2008-2009 ikasturtetik aurrera tronpeta, pandero eta txalaparta espezialitatea irakasteko baimena ematen zaio. Eskolaren kode zenbakia 20007308 da; helbidea Xabier Munibe Zuhaiztia z.g., eta titularra, berriz, Asociación Bizkargi Musika Eskola.

Ikastetxe horretan irakaskuntza hauek emango dira: 1., 2., 3. eta 4. mailak.

Adarra:

– Kantua: korua.

– Instrumentu sinfonikoak: txirula, klarinetea, tronpa, biolina, biola, biolontxeloa, perkusioa eta saxofoia.

– Instrumentu polifonikoak: pianoa, akordeoia eta gitarra.

– Bertakoak: txistua, trikitixa, dultzaina, alboka, panderoa eta txalaparta.

– Zenbait joera: pianoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzierrekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 16a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

6250

ORDEN de 16 de octubre de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza la ampliación de especialidades a la Escuela de Música Privada «Bizkargi» de Azkoitia (Gipuzkoa).

Examinada la solicitud presentada por la Escuela de Música Privada «Bizkargi» de Azkoitia (Gipuzkoa), de autorización para la ampliación de especialidades.

Considerando que el Decreto 289/1992, de 27 de octubre (BOPV de 4 de enero de 1993), por el que se rigen la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi, en su Capítulo II, establece la titulación requerida al profesorado para ejercer la docencia en Escuelas de Música.

Vista la legislación vigente y considerando que se cumplen todos los requisitos exigidos reglamentariamente,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza a la Escuela de Música Privada «Bizkargi» Musika Eskola Pribatua, n.º de código: 20007308, sita en Xabier Munibe Zuhaiztia z/g, del municipio de Azkoitia (Gipuzkoa), y cuyo titular es la Asociación Bizkargi Musika Eskola, a impartir a partir del curso escolar 2008-2009 las especialidades de trompeta, pandero y txalaparta.

Se impartirán en este centro las siguientes enseñanzas: niveles 1, 2, 3 y 4.

Rama:

– Canto: coral.

– Instrumental sinfónica: flauta, clarinete, trompa, violín, viola, violoncello, percusión, saxofón y trompeta.

– Instrumental polifónica: piano, acordeón y guitarra.

– Autóctona: txistu, trikitixa, dultzaina, alboka, pandero y txalaparta.

– Tendencias diversas: piano.

DISPOSICIÓN FINAL

Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de octubre de 2008.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.